

TALAKO KANTINAREN EMAKIDA ESLEITZEKO OINARRIAK

1.- EMAKIDAREN XEDEA

Bermeoko udalerrian, Talako kantinaren emakida esleitzea da deialdi honen xedea. Hona hemen kantinaren ezaugarriak:

Kokapena: Tala

Eraikinaren ezaugarriak: Planta bakarra eta erdi sotoa daukan eraikina. Erdi sotoak 22 m2 daukaz eta plantak 34 m2.

Erregistroko datuak: Lirubura: 187; Tomoa: 860; Finka zenbakia: 14319.

Udal Inbentarioan 11 epigrafean 76. zenbakiagaz jasota.

Emakida jabetza eskubidea salbu eta hirugarrenen kalte barik emongo da.

2.- EMAKIDAREN EZAUGARRIAK

Emakida, honako erabilera honeetarako emongo da:

Ostalaritzako jagokon kategoriagaz bat, hau da, 2. kategoria, ustiatzeko, muga orokorrak errespetatu. Esleipendunak ezin izango du aldatu lokalen destinoa. Egoera onean mantentzera behartuta egongo da, egin behar diren konponketak eginez. Erabiltzaileek egindako narriaduren erantzukizuna ere izango dau.

Erabilera horreetatik kanpo ezingo da ezelako ustiapen edo jarduerarik gauzatu eta, baldintza hau beteko ez balitz, emakida bertan behera izteko zioa izango da.

3.- EMAKIDEAREN IRAUNALDIA

Deialdi honen xede dan emakidearen iraunaldia 2029ko abenduaren 31ra arte izango da. Epe hau luzaezina da.

Epea amaituta emakidadunek Talako kantina libre itzi beharko dabe eta Udalaren eskura ipiniko, egoera onean eta garbi, eta egindako obrak edota hobakuntzak, udalaren titularitatera pasatuko dira ez bada eramangarriak dirala ezelako obra edo apurketa egin barik.

Horrela egingo ez balitz, udalak kaleratze administratiboa bideratzeko ahalmena eukiko dau eta, behin kaleratzea exekutatuta, eraikinean geratzen diran ondasun eta hobakuntzak udalaren titularitatera pasatuko dira, bardin eramangarriak izan zein ez.

4.- EMAKIDAREN KANONA



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A RRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Datea: 14/03/2019
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



Lizitazinoko gitxieneko kanona, hilero 355 eurotan finkatzen da. Lehiatzaileek, proposamena aurkezterakoan, hilero ordaintzeko eskaintzen daben prezioa zehaztu beharko dabe, beti be hileroko 350 eurotik gorakoa izango dana.

Esleipendunak, proposatutako kanona hori esleipena formalizatu eta hurrengo hilabetearen lehenengo lanegunean ordainduko dau eta, hurrengoko hilebeteetan be, lehenengo lanegunean egin beharko dau ordainketa, emakida amaitu arte.

5.- ADJUDIKAZINO FORMEA

Kontratu hau lehiaketa bidez esleituko da.

Puntuaketan bardinketarik egongo balitz, eskaintza ekonomiko altuena egin dauanaren alde erabagiko litzateke esleipena eta, halan da be, bardinketa mantenduko balitz, zozketa bidez.

6.- ADJUDIKAZINO ERISPIDEAK.

Esleipena egiteko erispide honeek hartuko dira kontutan:

1- Tala dinamizatzeko plana: 30 puntu

Plan honetan, Tala dinamizatu eta bizibarritzeko ekimen eta proposamenak baloratuko dira.

Lehentasuna eukiko dabe, 09:00etatik 22:00etara udan eta 10:00etatik 21:00etara neguan, burutzeko ekimen edo proposamenak.

Puntuak modu honetan banatuko dira:

*Aitatutako ordutegiaren barruan egiteko ekimen edo proposamenak: 20 puntura arte gehienez.

- Ordu bat eta ordu 2 arteko iraupena daukan ekimen bakotzeko: puntu 1.
- Ordu bitik gora eta 5 ordura arteko iraupena daukan ekimen bakotzeko: puntu 2.
- 5 ordutik gorako ekimen bakotzeko: 5 puntu.


Gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira.

*Aitatutako ordutegitik kanpo egiteko ekimen edo proposamenak: 10 puntura arte gehienez.

- Ordu bat eta ordu 2 arteko iraupena daukan ekimen bakotzeko: 0,5 puntu.
- Ordu bitik gora eta 5 ordura arteko iraupena daukan ekimen bakotzeko: puntu 1.



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Data: 14/03/2019
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



- 5 ordutik gorako ekimen bakotzeko: 2,5 puntu.

Aurreko atal bien artean lortu leiken gehieneko puntuaketa 20 puntukoa izango da. Hau da, proposatzen diran ekimen edo proposamen guztiekaz, 20 puntuko gehiengoa lortu ahal izango da danatara, bardin lehenetsuneko ordutegiaren barruan zein kanpo egin.

*Ekimen horreekaz bultzatzen diran baloreak: 10 puntura arte gehienez:

- Bardintasuna sustatzea: puntu 2 gehienez.
 - Bardintasuna sustatzen dauan ekimen bakotzeko, 0,20.
- Ingurumena jabotea sustatzea: puntu 2 gehienez.
 - Ingurumena sustatzen dauan ekimen bakotzeko, 0,20.
- Alkarbizitza sustatzea: puntu 2 gehienez.
 - Alkarbizitza sustatzen dauan ekimen bakotzeko, 0,20.
- Gizarteratzea sustatzea: puntu 2 gehienez.
 - Gizarteratzea sustatzen dauan ekimen bakotzeko, 0,20.
- familiarterako aisialdia sustatzea: puntu 2 gehienez.
 - Familiarterako aisialdia sustatzen dauan ekimen bakotzeko, 0,20.

2- Eskaintza ekonomikoa: 20 puntu.

Puntuak zehazteko formula hau izango da:

Eskaintako prezioa: $P_n = 20 \times (E_o/E_n)$

P_n , eskaintza ekonomikoaren puntuazioa.
 E_o , aurkeztutako eskaintza ekonomikorik altuena
 E_n , eskatzaileak aurkeztutako eskaintza ekonomikoa.
Eskaintza altuenera 20 puntu emongo jakoz.

3- Kantinaren antolaketa eta proposatuko dan ustiapen-plana: 20 puntu


Atal honetan egutegia, ordutegia eta euren antolaketa baloratuko dira, baita oporren plangintza be. Kantina urteko egun gehienetan eta ahalik eta ordu gehienetan zabalik egotea lehenetsiko da, beti be 2. kategoriako ostalaritza establezimenduen ordutegiaren barruan.

Era berean, oporregaitik kantina zarratzea aurreikusten bada, opor egunak azaroaren 1etik eta apirilaren 30rra bitartean izatea lehenetsiko da.

Hori horrela, kantina oporregaitik zarratzea 30 egunetik behera bajatzen dan egun bakotzeko, puntu bat emongo da, 15 puntura arte gehienez, opor egun horreek



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Data: 14/03/2019
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



azaroaren 1etik eta apirilaren 30era bitartean hartzen badira, eta 0,5 puntu emongo dira, 7,5 puntura arte gehienez, opor egun horreek maiatzaren 1etik eta urriaren 30era bitartean hartzen badira.

Ordutegiari jagokonez, 5 puntu emongo dira 09:00etatik 22:00etara udan eta 10:00etatik 21:00etara neguan zabalik eukitzeagatik jarraian, eta puntu bat kenduko da ordutegi horreen barruan zarratzen dan ordu bakotxagaitik. Hori horrela, aitaturako ordutegiaren barruan, ezingo da 5 ordutan baino gehiago zarratuta egon.

Aurkeztutako egutegi, ordutegi eta oporren plangintza loteslea izango da esleipendunarentzat, ez bada Udalak, interes orokorragaitik, aldaketaren bat egitea erabagitzen dauala.

4- Lehiatzaileak ipiniko dauzan elementu eta altzarien kalitatea, originaltasuna eta itxura. Hauek inguruneagaz bat egon beharko dira. Debekatuta gelditzen da plastikozko altzariak ipintzea eta baita merkatal publizitatea edo babes daukeenak ipintzea bai kantinaren barruan zein terrazan: 10 puntu.

5- Emakidaren objektu diran espazio eta lokalen mantenu eta garbiketa programa, hondakinen kudeaketa sistema barne: 5 puntu.

-Garbiketa programa eta hondakin kudeaketa (0-4puntu). Lehenetsuna emongo jake honako puntuei:

Zehaztasuna eginbeharrei jagokenez eta hauen maiztasuna (0-2)

Garbiketa-produktu ekoetiketatunak erabiltzea (0-1)

Hondakinen bereizketa bermatzeko sistema (0-1)

-Mantenu programa. Bereziki baloratu da zehaztasuna eginbeharrei jagokenez eta hauen maiztasuna (0-1puntu).

6- Lizitzaileek emakidan emoten dan ondasuna edota beran ustiaketa hobatzeko edota balioan ipinteko balio dabezan bestelako proposamenak: 10 puntu.

Atal honetan, mantenu txiki eta margozketa lanak, ustiaketa hobatzeko tresneria osagarria ipintea, eta baliokideak baloratuko dira.

7- Kantinaren ostalaritza kategoriagaz zuzenean lotutako lan egingo daben langileen prestakuntza. Hala nola, jakien manipulazioagaz lotutakoak, eraikinen garbiketagaz lotutakoak, etab.: 5 puntu.

-10 ordutik 20 ordura arteko ikastaro bakotzeko 0,2 puntu emongo dira.

-21 ordutik eta 50 ordura arteko ikastaro bakotzeko puntu 1 emongo da.


-51 ordutik eta 100 ordura arteko ikastaro bakotzeko 3 puntu emongo dira.

-100 ordutik gorako ikastaroa edukitzeagaitik 5 puntu emongo dira.

6.- ESKARIAK AURKEZTEKO BALDINTZA OROKORRAK.



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Data: 14/03/2019

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



1.- Emakida honen xede diran erabilera eta jarduerak garatzeko ahalmena izatea, hau da, lehiatzaileen objektu sozialagaz edo jardureagaz bat etortzea.

2.- Bermeoko Udalagaz, legezko errekurtsoren zain ez dagoan ezertariko zorrik ez eukitea.

3.- Foru Ogasunagazko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzzeagazkoak egunean eukitea.

4.- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor- edo administrazio-arloko zigorrik ez eukitzea.

Emakidadunak baldintza honeek emakida irauten dauan bitartean betetu behar dauz. Momenturen baten baldintza honeetako bateren bat beteko ez baleu, emakida bertan behera izteko zioa izango da.

7.- ESKARIAK AURKEZTEA

Baldintza pleguak eta generako dokumentazioa berh@z bulegoan aztertu eta eskuratuko dira, ordutegi honetan: Goizez 8:30etatik 14:30etara arte, astelehenetik barikura, eta 10:00etatik 13:00etara arte, zapatuetan. Arratsaldez 16.30etatik 19:00etara (martitzen eta eguenetan bakarrik). Deialdia egiten dan egunetik lizitazio data egunera arteko epea egongo da dokumentazioa aztertu eta eskuratzeko.

Eskariak Udalaren Erregistro Orokorrean (berh@z bulegoan) aurkeztuko dira hamabost laneguneko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren iragarkia publikatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Parte hartzaileek, eskari bakarra aurkeztu ahal izango dabe.

8.- MAHAIAREN OSAKETA

Mahaia kide hauekin osatuko da:

Lehendakaria: Udaleko alkatea (bere ordez, alkateak izendatzen dauen zinegotzia).

Kideak: Jurdana Uriarte Lejarraga and., Udaleko idazkari nagusia (bere ordez, Karmele Muñoa Arrigain and.), Edurne Urrutia Uriante and., Udal kontu hartzailea (bere ordez, Idurre Basterretxea Altonaga and.), Ainara Etxebarria Agorria and. Administrazio Orokorreko eta Karmele Muñoa Arrigain and. sail arduraduneko teknikaria.

Idazkaria: Jone Areskurrinaga Jaio and. sail arduraduneko administrari laguntzailea (bere ordez, Olatz Gamboa Elorriaga and.).



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Data: 14/03/2019
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



9.- DOKUMENTAZINOA ETA ONARPENA

Lehiatzaileek hiru gutunazal aurkeztu beharko dabez. A, B eta C.

“A” gutunazalean testu hau idatziko da: “TALAKO KANTINAREN EMAKIDA ESLEITZEKO DEIALDIA.”A GUTUNAZALA. DOKUMENTAZIO OROKORRA”.

A gutunazalean I. Eranskina aurkeztu beharko da, behar dan moduan sinatuta.

“B” artxiboan testu hau idatziko da: “TALAKO KANTINAREN EMAKIDA ESLEITZEKO DEIALDIA.”B GUTUNAZALA. BALIO-JUDIZIOZKO IRIZPIDEAK”.

Hona hemen artxibo honetan aurkeztu beharreko agiriak:

1- Lehiatzaileak ipiniko dauzan elementu eta altzarien deskribapena, beharrezkoak diran agiri eta argazkiekaz lagunduta.

2- Emakidaren objektu diran espazio eta lokalen mantenu eta garbiketa programa, hondakinen kudeaketa sistema barne.

3- Lizitatzzaileek emakidan emoten dan ondasuna edota beran ustiaketa hobatzeko edota balioan ipinteko balio dabezan bestelako proposamenak.

“C” artxiboan testu hau idatziko da: “TALAKO KANTINAREN EMAKIDA ESLEITZEKO DEIALDIA.”C GUTUNAZALA. PROPOSAMENA”.

Hona hemen artxibo honetan aurkeztu beharreko agiriak:

1- Tala dinamizatzeko plana.

2- Proposamen ekonomikoa, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak sinatuta, administrazio-klausula partikularren Pleguaren II. Eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera idatzita.

3- Kantinearen antolaketa eta proposatuko dan ustiapen-plana.

4- Kantinearen ostalaritza kategoriagaz zuzenean lotutako lan egingo daben langileen prestakuntza.

Ez dira onartuko proposamen hauek:



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Datea: 14/03/2019
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- 1) Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
- 2) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- 3) Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
- 4) Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.
- 5) Pleguaren II. Eranskin gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
- 6) Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.

Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko erizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiaik beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.

Parte hartzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Hori betetzen ez duten parte hartzaileak kanporatu egingo dira.

Udalak edozein momentutan eskatu ahal izango du erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoak betetzen direla agiri bidez justifikatzeko.

Esleipendunak, horretarako errekerimendua jaso eta 5 laneguneko epean aurkeztu beharko ditu eskatutako agiriak.

Proposamenak aurkeztearen ondorioak: Proposamenak aurkezteak, parte hartzaileak oinarrik onartzen dauzala eta baldintza guztiak betetzen dituela suposatuko dau.

Eskariak aurkezteko epea amaituta, mahaiak, A gutunazalak zabalduko dauz eta, inolako akats materialik aurkituko baleu, hiru (3) laneguneko epea, ez gehiago, emongo dau, egoki ikusten badau, parte hartzaileak akatsak zuzendu daizan.

Jarraian, B gutunazalak zabalduko dauz eta proposamenak baloratuko dauz.

Azkenik, C gutunazalak zabalduko dauz horretarako deitutako ekintza publikoan. Gutunazalak zabaldu baino lehen, B gutunazalaren balorazioaren barri emongo dau.

10.- PROZEDUREA

Proposamenak zabaldu eta, gehienez, hilabeteko epean, jagokon udal organoak, emakidaren esleipena egingo dau.



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Datea: 14/03/2019
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Esleipena egin orduko, puntu gehien lortzen dauzan parte hartzaileari, errekerimendua bialduko jako honako agiri honeek aurkeztu daizan:

- Proposamena sinatzen dauenaren NANA.
- Pertsona juridikoa bada, Soziedadearen Konstituzino Eskriturearen kopia baimendua, edo notaritzako testigantzea, edo behar dan moduan legeztatutako fotokopia, eta proposamena sinatzen dauenaren alde emondako ahalmen nahikodun ahalordea edo testigantza notariala, Merkatal Erregistroan inskribaturiko bataren eta bestearen dokumentu bateratu bat.
- Emakida honen xede diran erabilera eta jarduerak garatzeko ahalmena daukala, hau da, lehiatzaileen objektu sozialagaz edo jardureagaz bat datorrela egiaztatzen dauan agiria.
- Ogasunazko betebeharrak guztiak ordainduta eukitearen Lurraldeko ziurtagiria.
- Gizarte Segurantziazko betebeharrak guztiak ordainduta eukitearen ziurtagiria.
- Behin betiko bermea.
- Aseguru polizaren kopia.

Adjudikazioa egin ondoren, adjudikazioduna, horren jakinarazpena hartu eta ondorengo egunetik hasita, honetara dago behartuta: hamabost laneguneko epean, emakida kontratua sinatzera.

Parte-hartzaileari egotzi leikiozan kausak dirala medio, aurreko klausuletan azaldutako dokumentuetariko edozein falta, edo osotu barik dagozalako kontratua formalizatu ezin izango balitz, administrazioak, interesatuari audientzia emon eta gero, hori suntsitzea erabagiko leuke.

Kontratua suntsiarazten dan kasuan, adjudikazioa baliogabe geratuko da, eta hurrengo geratu danari, esleipena egin orduko errekerimendua bialduko jako, atal honetako goikaldean zehaztutako moduan.

Kausak ez balira esleipendunari egoztekoak, Administrazioak luzatu egingo leuke idazki arrazoituaz, adjudikaziodunari epe barria jakinarazota, honek inondik be ezin izango leuke ezarritako eperik gairitu, tratatzen dan kausaren ondorioz galduta gertatu daitekeen denpora berbera.


Kontratuaren formalizazioagaz batera, adjudikaziodunak Plegu honegaz bat datorrenaren adostasuna sinatuko dau. Dokumentu hau eta adjudikatutako eskaintzen ezaugarriek, kontratuzko izaerea eukiko dabe.

Esleipendunak, 15 eguneko epe barruan jakinarazo beharko dauz sortu daitekezan ezgaitasun eta bateraezintasunak.

11.- BERMEA



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8	Sinadurea eta data MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 21/05/2019 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019 10:20:21	EXPEDIENTE :: 2019IDA_ERA_0053 Data: 14/03/2019 Erregistro unidatea: Erregistro nagusia

Esleipenerako proposatutakoak, esleipena egin orduko, esleipen prezioaren %3ko bermea jarri beharko dau, emakidan jasotzen dauan ondasuna behar bezala erabiliko dauala bermatzeko.

Emakida amaitzen danean, egokiak diran ikuskapenak egin ondoren, bermea itzuliko jako, ondasunean kalterik sortu ez dala egiaztatzen bada.

Emakidadunari eragotzitako kalterik balego, kaltearen balioaren zenbatekoan atxekituko da ipinitako bermea eta, honegaz nahikoa ez balitz, falta dan zatia premiamenduzko bidea jarraituz kobratuko da.

12.- EMAKIDAREN FORMALIZAZINOA

Emakida kontratu bidez formalizatuko da eta, gitxienez, honeek jasoko dauz:

- Emakidearen titularra.
- Emakidan emoten dan ondasunaren kokapena eta deskribapena, eta barne hartzen dauzan elementuak.
- Baimendutako erabilera eta jarduerak.
- Emakidaren iraunaldia.
- Emakidadunaren eskubide eta betebeharrak.
- Emakidaren kanona.
- Arau haustek eta zigorrak.

Emakida kontratu bidez formalizatu orduko, emakidan emoten dan ondasunaren egoeraren ganeko ikuskapena egingo da eta aktan jasoko da.

13.- EMAKIDADUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

1.- Eskubideak:

- Emakidan emondako ondasuna, baimendutako erabilera eta jardueretarako askatasun osoz erabili ahal izatea, kanpoko ezelako oztopo barik, emakidak irauten dauan bitartean.

- Interes orokorreko arrazoiengaitik emakidaren epea amaitu orduko bertan behera itzi beharko balitz, izandako galeren araberrako kalte-ordaina eskuratzea, galera horreek modu egoki eta egiatian justifikatu ondoren.

- Ondasunaren ustiapenetik lortutako etekinak emakidadunarentzat izango dira.

-Terraza jartzeko eskubidea izango dau, ostalaritzaren terraza eta mahaiak instalatzeko udal ordenantzak finkatutakoa jarraituz, tasak ordainduz eta udal teknikariek adierazotako irizpideen arabera.



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Data: 14/03/2019
Erregistro unidea:
Erregistro nagusia



2.- Betebeharrak:

- Emakidan emondako ondasunaren erabilera pertsonalki egitea.
- Kanona ordaintzea.
- Edozelako obra edo instalakuntzea egiteko udalaren oniritxia eskuratu eta, ondoren, obra lizentzia lortzea.
- Ondasuna jagon, eta txukun eta garbi mantentzea; bere egoera mantentzeko beharrezko mantenu lanak egitea, eta jarduera garatzeko beharrezko obrak egitea, beti be Udal lizentzia aurretik eskuratuta. Behar diran konponketetaz arduratuko da, baita berari zein erabiltzaileeri eragotzitako narriadurak konpontzeaz. Beharrezko konponketak egingo ez baleuz horretarako emondako epean, udalak konponduko dauz, ordezko exekuzino bidez.
- Udalak egoki eristen dauzan ikuskapenak egin ahal izateko eragozpen edo trabarik ez ipintea.
- Baimendutako erabilera eta jardueretatik sortu leikezan erantzukizunak erantzuteko eta edukiera babesteko, gitxienez 100.000 euroko estaldura daukan aseguru egokia eukitzea. Polizaren kopia ondasunaren erabilera hasi orduko aurkeztu beharko da eta, beti be, kontratua sinatu eta gehienezko 10 laneguneko epean.
- Emakidadunak berehala jakinarazo behar dauz ondasunetan sortutako kalte, arazo edo irregulartasunak, baita beraren erru edo borondatearen kanpokoak badira be.
- Emakidadunak jagokon kategoriari jagokozan ustiatzearen helburua eta muga orokorrak errespetatu beharko dauz. Ezin izango dau aldatu zerbitzua emateko tabernaren lokalaren destinoa.
- Emakidunak, emakida epea amaitu eta segiduan, erabileraren xede diren ondasunak administrazioaren esku, libre eta hutsik izteko betebeharra dauka eta onartu egiten dau administrazioak daukan ahalmena botatzea erabagi eta berak exekutatzeko.
- Baimendutako erabilera eta jardueretan herritarrekiko harremanetan erabiliko dan hizkuntza euskera izango da, herritarren hizkuntza eskubideen kalte barik. Erabiltzaileekiko tratua ona eta begirunekoa izango da uneoro.
- Esleipenduna eukiko dauzan langile guztien presentzia, garbitasuna eta higie ne zuzenaren erantzulea izango da, baita instalazioak erabiliko dabezan guztienganako tratu ona eta begirunekoarena. Erabiltzaileen arrera egokiaz erantzun beharko dau be.



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Data: 14/03/2019
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- Errotulu, kartel, iragarki edo informazio orririk ipintekotan, euskeraz ipiniko dira. Euskeraz ondo idatzita egongo dira. Eta, beste hizkuntzaren batean idatzi behar izatekotan, euskerazko testuari lehentasuna emongo jako, euskerazko testua bi aldiz handiago idatziz. Publizidadetik egitekotan be, euskeraz egingo da eta, beste hizkuntzaren batean egin behar izatekotan, euskeraz eukiko dau lehentasuna.

Udaleko Euskera Sailak aholkularitza eta baliabide teknikoak eskainiko deutsoz emakidadunari, bere ohiko jardunean euskerearen erabilera egokia ziurtatzeko beharrezkoa dauenean.

- Betebehar guztiak, bai fiskalak eta bai laboralak betetea, baita baimendutako erabilera eta jarduera garatzeko legediak agintzen dauzan bestelakoak. Baimendutako erabilera eta jarduerak garatzeko beharrezko bestelako baimen guztiak eskuratuta eukiko dauz eta jarduerak irauten dauan uneoro egunean mantendu beharko dauz. Betebehar hau ez betetea, emakida bertan behera izteko zioa izango da.

- Laneko hartu-eman esparruan, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Segurtasun eta Higiene arloan indarrean dauden xedapenak betetzea, eta, hauek arauak batez be: Langileen Estatutua, martiaren 14ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bateratua, 43 eta 44 artikulua bereziki; Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra, ekainaren 20ko 1/1994 Errege Dekretuak onartutako testu bateratua, 70. artikulua ezarritakoa bereziki, honen bidez, esleipendunak bere zerbitzura dagoen langileria guztiaren lan istripu eta gaixotasun gorabehera guztiak ordaindu behar dituelarik, Gizarte Segurantzaren Nazio Instrukzioekin; 1971eko martiaren 9ko Ministro-Agindua onartutako Laneko Osasun eta Higienarako Ordenantza Orokorra; Maiatzaren 19ko 10/1994 Legea; Azaroaren 8ko 31/1995 Laneko Arriskuen Prebentzioarako Legea; Bagilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua; lanaren eta enpresarioaren jarduna kokatzen den zerbitzuan aplikagarriak diren Hitzarmen Kolektiboak, eta bai estatu mailan zein estatu mailaz kanpoko lan hartu-emanetan, gizarte segurantzaren edo laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden xedapenak.

- Ostalaritzako kategoria bereko establezimenduetarako bereziki aplikagarria dan araudia zehatz eta mehatz gordeko dau esleipendunak.


- Emakidaren amaieran hartu dauzan moduan entregatzen behartuta dago.

- Emakidadunak ezin izango dau egin egitura aldatu daikoen obrarik, ez eta Bermeoko Udalaren baimen espresu barik makinaria barririk jarri ere. Instalazioak hitzartu dan erabileretarako bakarrik erabili ahal izango dauz.

- Esleipenduna behartuta egongo da 2. kategoriako ostalaritza jarduera garatzeko beharrezkoak diran Osasun, Turismo, Ogasuna edo, ostalaritza garapenerako beharrezkoak diran bestelako lizentzia, baimenak, ea. egunean eukitera.



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Data: 14/03/2019
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- Emakida kontratua sinatzen danetik 30 eguneko gehiengo epe barruan zabalduko da taberna. Zabaltzea egin barik, epe hori igaro ondoren, emakida bertan behera itzi ahal izango dau Udalak, interesdunari entzunaldia emon eta gero.

- Jardueratik eratorritako tasa eta zerga guztien ordainketa.

- Kantinaren kontserbazio eta mantenimendu gastuen kargu egitea, argia, ura eta garbiketara barruan dirala.

- Kantinaren komun publikoak zabalik eta garbi edukitzea egunero, kantina zabalik dagoen bitartean.

14.- UDALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

1.- Udalaren betebeharrak:

- Instalazioak esleipendunaren eskura jartzea.

- Betebeharrak betez gero, emakidak irauten dauen denbora guztian hitzartutako okupazio egokia burutzea esleipendunari.

- Instalazioen erabilerean eta bertan burutuko diran jardueren aurka ez egitea.

- Emakida bertan behera geratuko balitz esleipendunaren erantzukizunpekoa ez dan arazoaren batengaitik, ondasuna berreskuratzeagatik kalte ordaina ordaintzea esleipendunari.

2.- Udalaren eskubideak:

Bermeoko Udalak ahalmen honek eukiko dauz:

- Interes publikoak eskatzen dauzan aldakuntzak edo berreskurapena egitea ondasun edo emakidan.

- Emakidaren xede diran instalazioak eta okupazioa bera behar dan moduan mantendu eta burutzeko aginduak emotea, beharrezkoa danean.

- Egiten dauzan lege-urratzeak dirala eta, esleipendunari zuzentze neurriak ezartzea.

- Interes orokorragaitik emakidan emondako instalazioak berreskuratzea.

15.- ARAU HAUSTEAK



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Data: 14/03/2019
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



Ostalaritzako edo horrelako jarduerak ipinteari eta euren funtzionamenduari buruzko Ordenantzan eta Ostalaritzaren terraza eta mahaiak instalatzeko Ordenantzan aurreikusitako arau-hausteetaz gain, honeek aurreikusten dira:

a) Arau-hauste arinak izango dira:

- Emakidan emondako ondasunaren osasun eta higiene baldintza egokiak ez bermatzea.
- Baimendutako erabilera eta jardueretatik kanpoko erabilera puntualak egitea, gehienez hiru biderrez. Ez bada, erabilera motaren, ezaugarrien edo errentagarritasun ekonomikoagaitik, larri legez hartzen dala.
- Ondasunean sortutako kalte, arazo edo irregulartasunen barri ez emotea, bardin emakidadunaren erru edo borondatez izan zein ez.

b) Arau-hauste larriak izango dira:


- Arau-hauste arin 2 egitea.
- Kanona ez ordaintzea.
- Baimendutako erabilera eta jardueretatik kanpoko erabilera egitea, ez bada puntuala, edo puntualak izanda be, lau biderrez edo gehiago egiten badira, edota erabilera motaren, ezaugarrien edo errentagarritasun ekonomikoagaitik, larri legez hartzen dalako. Hori guztia, erabilera motaren, ezaugarrien edo errentagarritasun ekonomikoagaitik, oso larri legez hartzen ez bada.
- Ondasunean udalaren baimen barik obrak egitea.
- Udalak egoki eritsitako ikuskapenak egitea eragozteko edo trabak ipintea.
- Herritarrekiko harremanetan, hizkuntza legez euskera ez erabiltzea, herritarren hizkuntza eskubideen kalte barik. Edota errotulu, kartel, iragarki eta abarretan, betebeharren atalean zehaztutako baldintzak ez betetzea.

c) Arau-hauste oso larriak izango dira:

- Arau-hauste larri 2 egitea.



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Data: 14/03/2019
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- Baimendutako erabilera eta jardueretatik kanpoko erabilera egitea, erabilera motaren, ezaugarrien edo errentagarritasun ekonomikoagaitik oso larri legez hartzen danean.

16.- ZIGORRAK

Ostalaritzako edo horrelako jarduerak ipinteari eta euren funtzionamenduari buruzko Ordenantzan eta Ostalaritzaren terraza eta mahaiak instalatzeko Ordenantzan aurreikusitako arau-hausteetaz gain, honeek aurreikusten dira:

Arau-hauste arinakaitik 50 eurorainoko isunak jarri ahal izango dira. Arau-hauste larriakaitik 50,05 eurotik 249 eurora arteko isuna ipiniko da, eta oso larriakaitik, 250 euroko isuna eta emakidea bertan behera ixtea.

Arau-hauste arinakaitik eta larriakaitik zigorrak ipinteko Alkatetzaren akordioa beharko da, interesdunari entzunaldia emon eta gero. Arau-hauste oso larriak Udalbatzak zigortuko dauz, jagokozan tramiteak bete eta gero.

Ostalaritzako edo horrelako jarduerak ipinteari eta euren funtzionamenduari buruzko Ordenantzan aurreikusitako arau hauste baten ondorioz, 46. artikulua araberan, jarduera hilabetetik gorako epean zarratzeko zigorra ipiniko balitz emakidadunari, emakida bertan behera ixteko zioa izango da, erabagia hartu aurretik esleipendunari entzunaldia emotearen kalte barik.


17.- EMAKIDEA IRAUNGITZEA

Emakidea kasu honeetan iraungiko da:

- a) Emakidearen epea amaitzean.
- b) Titularrak uko egitean. Kasu honetan, 3 hilabeteko aurre abisua egin beharko da, udalak emakida berriz esleitzeko denbora izan daian.
- c) Titularra hil edo enpresea desegitean.
- d) Alde bien adostasunagaitik.
- e) Udalaren erabagiz, interes publikoko arrazoiren batek halan eskatuko baleu, esleipendunari egokitu ahal jakozan kalteordainen kalte barik.
- f) Arau hauste oso larri baten ondorioz, emakidea galtzea eragin dauen zigorra ipini izanagaitik, edota Ostalaritzako edo horrelako jarduerak ipinteari eta euren funtzionamenduari buruzko Ordenantzan aurreikusitako arau hauste baten ondorioz, 46. artikulua araberan, jarduera hilabetetik gorako epean zarratzeko zigorra ipiniko balitz.
- g) Emakida honen xede diran erabilera eta jarduerak garatzeko ahalmena galdu edo desagertzeagaitik emakidadunaren objektu sozial edo jardueratik.
- h) Bermeo Udalagaz, legezko errekursoaren zain ez dagoan zorren bat eukitzea.



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Data: 14/03/2019
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- i) Foru Ogasunagazko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzazagazkoak egunean ez eukitzea.
- j) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor edo administrazio arloko zigorra izatea.
- k) Betebeharren atalean zehaztutako aseguru politik ez eukitzea edo egunean ez eukitzea.
- l) Betebehar fiskal eta laboralak ez betetea.
- m) Baimendutako erabilera eta jarduerak garatzeko legediak agintzen dauzan betebehar eta baldintzak ez betetzea.
- n) Baimendutako erabilera eta jarduerak garatzeko beharrezko bestelako baimen guztiak ez eukitzea edo egunean ez izatea.

Emakidea iraukitzea, eskudun udal organoak hartutako erabagi bidez egingo da, interesdunari aurretiaz hamabost (15) laneguneko epearen barruan aurretiazko audientzia emon eta gero, ez bada a), b), c) eta d) kasuakaitik iraukitzen dala.

18.- LEGEDI APLIKAGARRIA

Emakida honeri honako legedia aplikatuko joko:

- 1. Administrazio Publikoen Ondarea arautzen dauen 33/2003 Legea.
- 2. Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen dauen 1372/1986 ED.
- 3. Sektore Publikoen Kontratuak arautzen dauzan 9/2017 Legea, esleipenari jagokonez.
- 4. Zuzenbide administratiboko arau orokorrak.
- 5. Zuzenbide pribatuko arau orokorrak.

Hori horrela, baldintza agiri honetan aurreikusten ez den gutzirako, edozein zalantza argitu eta emakidearen baldintzak interpretatzeko, aitatutako legediak aurreikusitakoa jarraituko da zehatz.

19.- ERABAGIAREN IZAERA JURIDIKOA ETA ADMINISTRAZINO BIDEARI AMAIERA EMOTEA

Emakida honen ondorioz hartu leikezan erabagien izaera administratiboa da eta bide administratiboari amaiera emongo deutsoe. Hori horrela, zuzenean aplikagarriak izango dira, Udalaren aurrean edota Administrazioarekiko Auzibidean errekurritzeko eskubidearen kalte barik.

Bermeon, 2019ko maiatzaren 20an

ALKATEA
Idurre Bideguren Gabantxo



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Data: 14/03/2019
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia





Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.

Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053

Fecha: 14/03/2019

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



I. ERANSKINA

ZINPEKO AITORPENA

..... jaun/andereak,
.....ko kalean, zenbakian bizi danak,
..... telefono zenbakia eta zenbakidun NANA daukanak,
bere izenean edo/eta Enpresearen ordezkari lez, eta
.....ko kalean, zenbakian
helbidea daukanak, telefono zenbakia, eta
IFZ daukanak Klausula Administratibo Partikularren Pleguan aurreikusitako eran
kreditatzen dodana, zera adierazoten dot:

1.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez, Araneko basetxearen emakida esleitzeko deialdia ezagutu ahal izan dogula.

2.- Deialdi honen oinarriak jasoten dauzan agiria aztertu eta ezagutzen dogula.

3.- Ados gagozala eta, borondatez, horren esku geratzen garala eta aurrekoa, oso-osorik eta aldaketa barik onartzen dogula.

4.- Aitatutako emakidea eskuratzeko baldintza guztiak betetzen doguzala eta esleipen erispideei jagokonez, honako erispide honek betetzen doguzala

.....
.....

5.- Emakida indarrean dagoan bitartean baldintza guztiak beteko doguzala.

6.- Baimendutako erabilera edo jarduera garatzeko legediak eskatzen dauzan baldintzak beteko daguzala uneoro eta beharrezko baimenak eskuratu eta mantenduko daguzala emakidak irauten dauan denbora guztian zehar.

7.- Ez daukagula ezelako zorrik ez Bermeoko Udalagaz, ez Foru Ogasunagaz, ezta Gizarte Segurantzaz be.

8.- Emakume eta Gizonen Bardintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor edo administrazio arloko zigorrak ez dogula.

9.- Deialdi honetan parte hartzeko ezelako debekurik ez daukagula.

Bermeon, 2019ko(a)ren(e)an

IZENPEA



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA
TEKNIKARIA - 21/05/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019
10:20:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0053
Data: 14/03/2019
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



II. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko NANarekin,
..... helbidea etaIFZ daukan
.....izeneko enpresaren ordezt,

ADIERAZTEN DUT:


Talako kantinaren emakida eskuratzeko, hileroko kanon, legez, euro
proposatzen ditudala, eta kopuru hori, hileko lehenengo lanegunean ordainduko dudala.

Bermeon, 2019korenan.

Sinatuta:
NAN:



Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9124 Faxa: 94 688 1102
urigintza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

 <p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E300023D7200P2F0Z0T5J1D8</p>	Sinadurea eta data	EXPEDIENTE :: 2019IDA_ERA_0053 Data: 14/03/2019
	MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 21/05/2019 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/05/2019 10:20:21	Erregistro unidatea: Erregistro nagusia

